



1936ko gerra ren ondorioak



Aitortu-partekatu berdin
Eibar, 2019

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

NORENTZAT: Material hau irakasleentzat eta begiraleentzat da, 12 urtetik gorako gazteekin lantzeko, ikastetxeetan zein aisia-guneetan (gaztelekuak...).

HELBURUA: Gaztetxoei 1936ko gerraren ondorioak ezagutaraztea, ikuspegi orokorra izan eta lanketak egin ditzaten. Gerraren kontrako kontzientzia pizteko eta gerran daudenekin enpatia sentitzeko balioko du.

GAIA: 1936ko gerra. Zer gertatu zen? Zergatik? Zer ari da gertatzen munduko beste toki batzuetan?

0. Sarrera
1. Zer dakizue gerrei buruz?
2. Zergatik piztu zen 1936ko gerra?
3. Ihes egin beharra: errefuxiatuak
4. Gerraren ondorioak: errepresioa
5. Gerra eta emakumeak
6. Euskararen eta euskal kultura zapalduta
7. Gerrako ekonomia
8. Lanketak

Elkarrizketa: zure familian, zer?

Irratsaioa: herrian gertatu zena

Abestiak ikasi

Bertsoak asmatu

Antzeztu


Ahotsak.eus proiektuan 15 urte baino gehiago daramatzagu adinekoak elkarriketatzen. Gerrarekin eta gerraostearekin lotutako testigantza mordoa dauzkagu jasota, gerra.ahotsak.eus webgunean. Testigantza horiekin, gaikako bideoak prestatu ditugu: 30 baino gehiago guztira. Material honen asmoa bideo horiek gaztetxoei ezagutaraztea da: gure historia, protagonistek kontatuta. Gertatu zena ezagutu dezaten. Gerrak zer diren.

Material hau pedagogikoa da, baina ez da unitate didaktiko bat. Bideoak gaika antolatu ditugu: genero ikuspegia, euskara, ekonomia... Guztiak ikusita, gertatu zenaren irudi orokorra eta sakona izango dute gazteek. Proposatzen diren bideo guztiak ikusi eta hausnarketak egiteko, gutxienez ordubeteko 7 saio behar dira. Hori bai, erabiltzaileak erabakiko du noiz, zer eta nola egin.

Gure asmoa ez da 1936ko gerran gertatu zenari buruzko idatzizko informazio zehatza eta ugaria ematea (deskribapenak, datuak, datak): ahotsak dira hemen informazio-iturri nagusia. Gertaeren inguruko oinarritzko zertzelada batzuk eman, eta bideoak ikusita, irakaslearen/begiralearen eta gaztetxoen esku eratuko da informazio gehiago bilatzea, hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea.

Oroimen historikoarekin lotutako hainbat unitate didaktiko daude, oso interesgarriak, material honen osagarriak izan daitezkeenak www.labur.eus/oroimenarenharra webgunean: ikus [unitate didaktikoak](#) atala.

1. Zer dakizue gerrei buruz?

- 
- Nolakoak dira gerrak? Zergatik gertatzen dira?
 - Hemen egon al da gerrarik? Noiz? Zer gertatu zen?
 - Entzun duzue gerrako konturik etxean? Kontatu!
 - Posible ikusten duzue hemen beste gerra bat piztea? Zer egingo zenukete?

1936ko gerra garaian ume zirenek eta gaur egungo gaztetxoek gerrari buruz diotenarekin osatutako **BIDEO HAU** ikusi, eta ondoren komentatu:



- Zer sentitu duzue bideoa ikustean? Ezerk harritu al zaituzte? Eta hunkitu? Eman iritzia.
- Lortu al duzue bideoan agertzen diren adinekoak (1936an ume zirenak) ume moduan irudikatzea?
- Zeintzuk dira gerrak dakartzan ondorioak? Gerra denak antzekoak al dira? Eztabaidatu. Irizkiak jaso.

2. Zergatik piztu zen 1936ko gerra?

Zein zen gerra aurreko giroa? Zer gertatu zen? Zergatik hasi zen gerra?

Grafikoa begiratu, eta eztabaidatu, talde txikietan jarrita.




- Zer da diktadura? Diktadoreen izenak bota (gai hori lantzen duen [unitate didaktikoa](#)).
- Zer aldaketa ekarri zituen II. Errepublikak? Zer lege-aldaketa egin zituzten? Boto eskubidea emakumeentzat, hezkuntza laikoa... informazioa bilatu denen artean.
- Badakizue Euskal Herrian **II. Errepublika** beste inon baino lehenago aldarrikatu zutela? Eibarren gertatu zen, **1931**ko apirilean. Eibarko lekukoen **BIDEOA** ikusi:



- Zergatik eman zioten Eibarri “*Ciudad ejemplar*” izendapena? Bideoa komentatu.



- “**1934ko urriko iraultza**”. 1934an, giroa gaiztotu egin zen... Eskubiak irabazi zuen, eta aurreko gobernuaren erreforma aurrerakoiak bertan behera utzi zituen. Protesta moduan, sindikatuek greba orokorrera deitu zuten. Asturiasen, protesta armatua egon zen: Espainiako armadak ehunka meatzari hil zituen... Euskal Herrian ez zuen hainbesteko indarrik izan, baina egon ziren hildako batzuk hemen ere (Eibarren bi langile eta enpresari bat, Arrasaten bi enpresari...) eta atxilotuak asko. **BIDEOA** ikusi:



- 1936an ezkerrek irabazi zuen berriz (Fronte Popularrak). Iraultzako atxilotuei amnistia eman zieten. Handik gutxira, militarrek matxinatu egin ziren, eta gerra hasi zen.
- Une honetan gertatzen ari den gerra bat aukeratu, eta aztertu: zergatik piztu da?

3. Ihes egin beharra: gerrako errefuxiatuak

Gerra guztietan daude migratzaileak. Errefuxiatuak. Asko umeak izaten dira. Zer gertatu zen 1936ko gerran?

4 BIDEO LABUR HAUEK ikusi ahala, komentatzen joan.

1. Bonbardaketak



- ✓ Bonbardaketak, herri askotan: Eibar, Otxandio, Bilbo...
- ✓ Latzenak, ezagunenak: Gernikan 1.000 hildako inguru; Durangon 336 hildako

2. Ihesa



- ✓ Milaka pertsona joan ziren ihesi: oinez, itsasontziz...
- ✓ Batzuk Bizkaia aldera, beste batzuk Iparraldera

3. Erbestea



- ✓ 30.000 ume baino gehiago bidali zituzten erbestera
- ✓ Frantziara (11.000), Belgikara (5.000), Erresuma Batura (4.000), Errusiara (3.000)...
- ✓ Habana itsasontzia, ebakuazioen ikurretako bat: 3.861 ume, Erresuma Batura

4. Itzulera



- ✓ Bueltan, batzuek etxerik ez zuten. Dirurik ez, lanik ez...
- ✓ Errusiara bidalitako haurrek 20 urtean ez zuten bueltatzerik izan

- Nongo errefuxiatuak ezagutzen dituzue gaur egun? Zein herrialdeetakoek eskatzen dute babesa hemen? Zer ari da gertatzen beren herrialdeetan?



- Gaur egun gerran dauden herrialdeak munduko mapa batean kokatu.
- Erbestera batzuk gerretatik ihesi datoz, beste batzuk gosetik ihesi... Mediterraneoan gertatzen ari denari erreparatu. Zer nolako jarrera daukate Europako herrialdeek? Zenbat pertsona hiltzen dira urtero Europara iritsi nahian? Datuak topatu eta partekatu!
- Ongi etorri errefuxiatuak eta Kikarakada bezalako ekimenak ezagutuko ditugu. Ikertu, eta Euskal Herriko egitasmoak zerrendatu! Zertan dabilta? Zer aldarrikatzen dute?

4. Gerraren ondorioak: errepresioa

Era askotako errepresioa eta bidegabekeriak dakartzate gerrek. Boterea daukanak “arerioari” mina egiteko erabili ohi du botere hori.

Hona hemen **BI BIDEO**:

Errekisatzea: ondasunak kentzea



Bi kartzela ezaguni buruzko **BIDEOAK**:

Ondarretako kartzela



Ondarreta: Preso egondako milaka gizon eta emakumeetatik gutxienez 600 fusilatu zituzten

Saturrarango kartzela



Saturrarán: Guztira 4.000tik gora emakume eta haur izan zituzten preso. Emakume askori umeak lapurtu zizkieten

- ✓ Ikusitako bideoak komentatu. Zerk harritu zaituztete? Zerk hunkitu? Zerk amorrarazi?
- ✓ Aukera bat: Saturrarango kartzelan kokatutako [Izarren argia](#) pelikula ikustea.

5. Gerra eta emakumea

Emakume gutxi ibiltzen da borroka-lerroan, gerretan, baina emakumearen papera garrantzitsua da oso: familiaren euskarria izaten da, biziraupenaz arduratzen dena.

Gerra guztietan, emakumearen aurkako indarkeria handia izaten da. Hemen ere izan zen soldaduek bortxatutako emakumerik (Nafarroan, adibidez, ezaguna da Maravillas neskatoaren kasua: ikus [Oroimenaren harra](#)). Beste ekintza bidegabe batzuk:

- ✓ Senarrak eta anaiak frontean zituzten emakumeak **herritik bidali** ([Zestotatik](#), [Azkoititik](#), [Azpeitiatik](#), [Elgoibartik](#), [Zumaiatik](#)...)
- ✓ **Ilea moztu**, errizino olio edanarazi, eta desfileetan ateraraztea ([Andoainen](#), [Asteasun](#), [Tolosan](#), [Soraluzen](#), [Urnietan](#), [Abadiñon](#), [Adunan](#), [Albizturren](#)...)
- ✓ **Lan zikinak eginarazi**: soldaduen arropa, egoitzak, kalea... garbiarazi ([Bergaran](#), [Aramaion](#), [Bermeon](#), [Lekeition](#)...)

Adibide gisa, Lekeitioko **BIDEO HAU** ikus daiteke (bukaera aldera aipatzen da):



Gerraostea ere gogorra izan zen emakumeentzat. II. Errepublikan eskuratutako boto eskubidea kentzeaz gainera, familia ugaria izatea saritu, eta emakumea etxekoandre izatera bultzatzeko **hainbat neurri** hartu zituen Francoren gobernuak.

Ikus **BI BIDEO** hauek:

Ezkontzean, lantegitik bota



Nesken soldaduska: zerbitzu soziala



Ikus 1953ko [Emakume onaren gida](#).

6. Euskara eta euskal kultura zapalduta

Frankismo sasoia garai iluna izan zen euskararentzat eta euskal kulturarentzat.

Ikus dezagun zer gertatu zen. Talde txikietan ipini, eta talde bakoitzak **BIDEO bana** ikusi:

Euskararen zapalkuntza



Ikastola klandestinoak



Kultur giroa: Ez Dok Amairu



Euskararen transmisioaren etena



Euskara eta zentsura



Franco Donostian



- Gainerako taldeetako kideei bideoan ikusitakoa azaldu, eta bideoari buruzko iritzia ere eman.
- Guztien artean eztabaidatu eta hausnartu. Zer da zentsura? Zer da klandestinoak? Eta adierazpen askatasuna? Gaur egun ba al dago gizarte-kontrolerako tresnarik? Ezagutzen al duzue eskubide-urraketarik?

7. Gerrako ekonomia

Gerraosteko urteetan eskasia handia egon zen: janaria errazionatuta zegoen, errotak itxita...

Neurri ekonomiko ugari ezarri zituzten. Gosea ekarri zuen horrek, eta baita kontrabandoa ere: elikagaien isilpeko sal-erosketa. **BIDEO LABUR** hauek ikusi eta komentatu:



- ✓ 1939ko maiatzean jarri zuen Francok errazionamendua, gerra bukatu eta segituan
- ✓ Familia bakoitzak bere errazionamendu kartila zeukan. Kupoiekin joaten ziren dendara
- ✓ 1952. urtera arte, oinarritzko lehengai asko txartel bidez jasotzen zituzten herritarrek
- ✓ Baserritarrek uztaren zati bat entregatu behar zuten: "kupoa"

ELKARRIZKETA: ZURE FAMILIAN, ZER?

Inportantea al da oroitzea? Hausnartu memoriaren inguruan.

- “Hildakoen bizitzek bizidunon oroimenean irauten dute”. **Cicerón**
- “Maitasuna eta oroimena ditugunean, ez dago benetako galerarik”. **Cassandra Clare**

- **Lan pertsonala** egiteko ordua iritsi da. Badakigu beste etxe batzuetan zer gertatu zen. Eta gure familietan? Ba al dakigu? Zure birramona-birraitonek zer egin zuten gerra garaian? Eta zure aitona-amonek gerraostean?
- Ikertzaile eta **elkarrizketatzaile** bihurtuko gara. Ahalik eta informazio gehien lortuko dugu, gertatu zena jakiteko eta ezagutarazteko.



PAUSOZ PAUSO

1. **Galdetegia** prestatu, guztien artean
2. **Elkarrizketa** egin (banaka edo binaka, bideoan). Hona hemen [jarraibide batzuk](#).
3. Grabatutakoaren **lanketa** egin. Aukera batzuk:
 - A. Idatziz ipini, eta erreportajea edo elkarrizketa atondu (izenburua, argazkia, argazki-oina...). Guztien artean aldizkaria osatu eta inprimatu.
 - B. Ikus-entzunezkoa prestatu:
 - Bideo-pasarte batzuk aukeratu, editatu eta elkarren segidan ipini
 - Izenburua eta bukaerako letrak ipini
 - Argazkiak eta musika ere erabili ditzakegu
4. Egindako lana besteekin **partekatu!**
5. Egoki iriztitakoak **sare sozialetan** zabaltu (elkarrizketatuen baimenarekin). Ederra litzateke gero grabazioak [ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea 📁

IRRATSAIOA: HERRIAN GERTATU ZENA

Zer gertatu zen zure herrian? Noiz sartu ziren tropak? Egon al zen hildakorik? Herrian gertatu zena jakiteko ahotsak.eus webgunean testigantzak bilatzea proposatzen dizuegu: herri zehatz bateko orrira sartu (adibidez, ahotsak.eus/ibarra) eta bertan “[Gaiak](#)” klikatu 🖱️. Ondoren, zerrendan gerrarekin lotutako gaiak topatu. Ibarran, **25 pasarte** inguru daude:

→ [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) (15)

→ [Gerraren hasiera](#) (2)

→ [Errepresioa](#) (2)

→ [Borroka](#) (4)

→ [Gerran hildakoak eta zauritutakoak](#) (1)

→ [Ihes egin beharra](#) (1)

→ [Gerraren eragina](#) (5)

→ [Gerraostea eta Francoren diktadura](#) (11)

→ [Gerratik itzulera](#) (1)

→ [Ekonomia gerraostean](#) (8)



PAUSOZ PAUSO

1. Herriko **pasarte interesgarrienak** identifikatu, binaka. Informazioa idatziz ipini.
2. **Informazioa** partekatu, ahoz. Guztion artean **historia osatu**.
3. Herrian gerra garaian gertatu zenari buruzko ikerketarik baldin badago, hori ere erabili informazioa ateratzeko.
4. **Irrati-gidoia** prestatu: narratzaileek zer esango duten, zer testigantza sartu une bakoitzean, zer musika eta soinu...
5. **Narratzaileen ahotsak grabatu**, eta edizio-lana egin (ikus irratsaio adibide bat: [Leitzako ikasleek egindakoa](#)).
6. **Emaitza** herriko irrati batera bidali. Ikus-entzunezkoa ere presta dezakegu, argazkiak gehituta, eta ikastetxean zein herrian zabaldu.

ABESTIAK IKASI

Badaude oroimen historikoa lantzen duten abestiak. Ezagutu ditzagun!



Ikus hemen [abestien loturak](#)

→ Binaka edo hirunaka ipini. Taldetxo bakoitzak **bi abesti** entzungo ditu:

1. Letrak lortu
2. Abestiak entzun
3. Sentipenak eta iritziak partekatu, talde txikian
4. Bi abestietako bat aukeratu, eta informazio gehiago bilatu (musika taldeari buruz, kontatzen duenari buruz...)
5. Aukeratutako abestia beste taldeekin partekatu, eta azalpenak eman

BERTSOAK ASMATU

Binaka ipini, eta bertsoak asmatu. Gaia: gerrako kontuak, oroimen historikoa.

- Doinua eta neurria aukeratu
- Kontatu nahi dena zehaztu
- Bertsoak osatu, azken puntutik hasita... [Arbel digitala](#) erabil daiteke
- Doinua aukeratu. Ikus [doinutegia](#)

ANTZEZTU

Antzerkia egin, antzerki-esketxak, gerran eta gerraostean gertatutako gatazka-egoerak oinarri hartuta. Hona hemen egoera posible batzuk, taldetxoetan lantzeko:

- Frontean, tiroa botatzera doanean, konturatu da beste aldekoa bere laguna dela. Berriketan hasiko dira
- Herriko ile-apaintzailea emakume bati ilea kaskamotz moztera behartu dute; emakume hori bere bizilaguna da
- Astoarekin errotara bidean doala, garia isilka ehotzeko asmoz, Guardia Zibila agertu zaio: aitzakiaren bat asmatu beharko du
- Txerria ezkutuan hil behar zuten, eta dena prest dutela Don Antonio agertu da bisitan, herriko parrokoa (karlista eta kontakatilua)
- Ezkontzera doala-eta lantegia uztera "gonbidatu" du enkargatuak, emazteek etxean egon behar dutela esanez. Berak, orde, lanean segitu nahi du
- Ikastola klandestino bateko ikasleak zarete. Inspektorea dator, eta ume gehiegi daude gelan. Zein ezkutatu da eta non?

Elkarriketa txikiak izan daitezke, bat-batean asmatutakoak. Denbora izanez gero, berriz, hona hemen antzezlanaren prestatzeko jarraibide batzuk:

- Egoera edo istorioa pentsatu
- Pertsonaien izaera eta jarrerak zehaztu
- Gidoitxoa idatzi: gertaerak eta elkarriketak
- Rolak banatu eta atrezzoak zein jantziak pentsatu
- Entseguak egin
- Antzeztu!



